

Beren jarduera Zallan altan emanda duten ostalaritzaestablezimenduentzako dirulaguntzak esleitzeko premiazko deialdiaren oinarri arautzaileak hasiera batean onestea. Dirulaguntza horien xedea da 2020ko azaroaren 6ko 38/2020 Dekretutik eta 2020ko abuztuaren 19ko Agindutik eratorritako galera ekonomikoak arintzea; aipatutako dekretuaren eta aginduaren bidez, oraingo egoera epidemiologikoaren garapenari dagozkion prebentzio neurri espezifikoak ezarri ziren.

2020ko azaroaren 26an, Enkarterri Berri Zerbitzuak SL enpresako Administrazio Kontseiluak behinbehinekoz onetsi zituen dirulaguntzen premiazko deialdiaren oinarri arautzaileak, zeinak beren jarduera Zallan altan emanda duten ostalaritzaestablezimenduentzako edo/eta apustujoko etxeentzako diren, baldin eta 10 langile baino gutxiago badituzte. Dirulaguntza horien xedea da alarmaegoeraren adierazpenaren eremuan 2020ko osasun publikoko prebentzio neurriak hartzen dituen azaroaren 6ko 38/2020 Dekretutik eratorritako galera ekonomikoak arintzea.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 3.2 eta 17.2 artikulua aplikatu dira. Lege horrek exijitzen du dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak ikuskaritza publikoan jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea 15 egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Hori dela eta, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta ohar taulan argitaratuko da, interesdunek aipatutako oinarri arautzaileak aztertu ahal izateko, eta, 15 egun balioduneko epean, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, administraziokontseiluaren esanbidezko erabakiaren bitartez behin betiko onetsi dela ulertuko da.

Hori guztia jakinarazi da, eta aipatutako dirulaguntzaren oinarriak osorik argitaratu dira jarraian.

Zallan, 2020ko azaroaren 26an.

— Administraziokontseiluko presidentea, Juan Ramón Urkijo Etxeguren.

Beren jarduera Zallan altan emanda duten ostalaritzaestablezimenduentzako dirulaguntzak esleitzeko premiazko deialdiaren oinarri arautzaileak. Dirulaguntza horien xedea da 2020ko azaroaren 6ko 38/2020 Dekretutik eta 2020ko abuztuaren 19ko Agindutik eratorritako galera ekonomikoak arintzea. Aipatutako dekretuaren eta aginduaren bidez, oraingo egoera epidemiologikoaren garapenari dagozkion prebentzio neurri espezifikoak ezarri ziren.

1. —Zioen azalpena

Iragan 2020ko azaroaren 6an, Lehendakaritza Sailak EHAAn argitaratu zuen alarmaegoeraren adierazpenaren eremuan osasun publikoko prebentzioneerriak hartzen dituen 38/2020 Dekretua.

Dekretu horren bigarren xedapeneko laugarren atalean, hainbat neurriren artean, ostalaritza eta sukaldaritzaestablezimenduak ixteko beharra ezarri zen. *“...Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezartzen da, hoteletako eta ostatu hartuta dauden bezeroen zerbitzurako beste ostatu batzuetako jantokietan izan ezik. Etxez etxe banatzeko edo establezimenduan bertan jasotzeko otorduak prestatu eta zerbitzatu ahal izango dira, edo bertan jasotzeko alde zurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte. Itxieratik salbuetsita geratzen dira gasolindegietako eta zerbitzuguneetako jatetxezerbitzuak errepidez zirkulatzen ari diren pertsonentzat, osasunzentro eta zerbitzuetakoak, zerbitzu soziosanitarioetakoak, eskola, lan eta unibertsitategoitzetako jantokiak eta izaera sozialeko jantokizerbitzuak. Kafetegizerbitzua modu osagarrian eskaintzen duten okindegigozotegi moduko establezimenduek ezin izango dute zerbitzu hori eskaini, eramateko izan ezik”.*

Era berean, aipatutako dekretuaren bigarren xedapeneko zazpigarren atalean, apustu-joko etxeak eta establezimenduak ixtea ezartzen da.

Iragan azaroaren 20an, Lehendakaritzak, 39/2020 Dekretuaren bidez, beste dekretu bat argitaratu zuen prebentzioko neurri espezifikoaren epea luzatzeko, abenduaren 10era arte.

Halaber, Osasun Sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Aginduaren 3.26 artikuluan hau esaten zen: *“establezimendu hauen itxiera deklaritzen da: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan III. eta IV. taldeetan sailkatutakoa...”*

Dekretatu diren neurri horien aurrean eta aintzat hartuta neurri horiek Zallako Udalari ekarriko diotena, Enkarterri Berri Zerbitzuak SL sozietate publikoaren bitartez (zeinak bere dirulaguntzen plan estrategikoaren barruan duen Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Enpleguarentzako Prestakuntza gaitasunarloetan erremintak ezartzeko gaitasuna duen), beharrezkotzat jo da sozietate horren baliabideak erabiltzea eta dirulaguntzak onestea, aurreko paragrafoetan deskribatutako kolektiboetako laguntze aldera, beren egonkortasun ekonomikoa mantentzeko, eta, ahal den neurrian, itxi behar izan duen edo fakturazioa baxua jasotzen duen merkataritza-jarduerari berrekin ahal izateko legeak baimentzen duenean.

2.— Xedea

Deialdi honen xedea da itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak esleitzea ostalaritzako establezimendu edo/eta apustujoko etxeei, 10 langile baino gutxiago badituzte (mikroenpresak, Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Araudiaren (EB) I Eranskinaren arabera), beren figura juridikoa edozein dela ere, betiere, beren jarduera Zallan altan emanda badago. Horren helburua da 38/2020 Dekretutik eta 2020ko abuztuaren 19ko Agindutik eratorritako galera ekonomikoak arintzea.

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak konkurrentzia ez lehiakorrean esleituko dira, onuradunaren egoera zehatz baten konkurrentzia soilarentzat esleitzen direlako, eta ez delako beharrezkoa eskaeren arteko konparaziorik egitea eta ez dagoelako horiei dagokien lehentasunik.

3.— Aurrekontua

Sozietate publikoak dirulaguntza honetarako duen aurrekontua 25.000 eurokoa da. Dauden eskabide guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, proportzionalki banatuko da. Dirulaguntza jaso baino lehen, esleipenaren xedea bete dela justifikatu beharko da.

4.— Onuradunak

4.1. Beren jarduera Zalla udalerrian altan eman duten ostalaritza eta sukaldaritza lokal eta jarduerak, dagokien autonomoen kuota (edo, hala badagokie, erregimen orokorrekoa) ordaintzeko atzerapenik ez badute eta itxita baldin badaude azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren bigarren artikulua bederatzigarren puntua betetzeko, edo, bestela, beren zerbitzuak murriztu badituzte artikulua hori betetzeko.

4.2. III. eta IV. taldeetan sailkatutako establezimenduak, tabernak eta gaueko aisialdirako lokal eta jarduera guztiak, baldin eta beren jarduera Zalla udalerrian alta emanda badute, dagokien autonomoen kuota (edo, hala badagokie, erregimen orokorrekoa) ordaintzeko atzerapenik ez badute eta itxita baldin badaude Osasun Sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Aginduaren 3.26 artikulua betetzeko.

4.3. Apustujoko etxeak eta establezimenduak, zeinen jarduera Zalla udalerrian alta emanda badute, dagokien autonomoen kuota (edo, hala badagokie, erregimen orokorrekoa) ordaintzeko atzerapenik ez badute, eta itxi behar izan badute azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren 2. artikuluko 18. puntua betetzeko.

Ezingo dira onuradun izan azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutako egoeraren batean dauden eskatzaileak.

Pertsona eta erakunde onuradunek, gutxienez, jarduera hori hiru hilabetez jarraian martxan izan beharko dute, establezimenduaren jardueraren etenaldia amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

5.— Laguntzen zenbatekoa

Baldintzak betetzen dituen onuradun bakoitzak 600,00 euro jasoko ditu.

Kopuru horrekin, 38/2020 eta 39/2020 Dekretuek beren lehen xedapen gehigarrian ezarritako epea estali nahi da; izan ere, oraingoz, epe horrek abenduaren 10era arte irautea espero da.

Dirulaguntza bakarra emango da saltoki, ostalaritzaestablezimendu edo enpresa bakoitzeko, jarduera hori garatzen duten autonomoak zenbat diren gorabehera.

Gaitzetsiko dira establezimendu berean edo pertsona juridiko berarentzat lan egiten duten autonomoen bakarkako dirulaguntzaeskabideak.

6.— Eskabideak aurkezteko lekua

Eskabideak honako leku hauetan aurkeztu beharko dira:

- Zallako Udaleko erregistro telematikoan.
- Postaz bidalita Zallako Udaleko Erregistro Orokorrean, betiere posta zerbitzuak bidaltzen den egunean zigilatu badu. (Zallako Udaleko Erregistro Orokorra: Kosme Bibanko, 1 – 48860 – Zalla – Bizkaia)

7.— Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak 10 egun baldioduneko epean aurkeztu ahal izango dira, oinarri hauek behin betiko onetsi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Orokorrean, onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren dirulaguntzaprozeduretarako Instrukzio Orokorretan exijitutakoak, Zallako Udaleko

dirulaguntzen Ordenantzan exijitutakoak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen Araudian exijitutakoak.

8.— Dokumentazioa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

Erregistro orokorrean eta Zallako Udalaren eta Enkarterri Berri Zerbitzuak SL Sozietate Publikoaren webgunetan dagoen eskabide ofiziala, zeinak barne hartzen duen eskatutako laguntzen eta hirugarrenen alten zinpeko adierazpena.

2. Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionala (NAN).

3. Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFK) egiaztatzeko txartela.

4. Bizilekubaimena, — atzerritarraren identifikaziozenbakia (AIZ), eta, hala badagokio, pasaporte.

5. 2020ko irailean eta urrian autonomoen kuota ordaindu izana justifikatzen duen ordainagiria. III. eta IV. taldeetan sailkatutako establezimendu, taberna eta gaueko aisialdirako lokal eta jardueren kasuan, etenaldi behartuaren aurreko bi hilabeteei dagozkienak.

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk ofizioz egiaztatuko du enpresa eskatzaileek indarrean diren xedapenek ezartzen dituzten zergabetebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean dituztela, arauz xedatutako moduan.

Betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Sozietate Publikoak egokitzat jotzen duen edozein dokumentu eskatu ahal izango du.

9.— Instrukzioa, proposamena eta ebazpena

ENKARTERRI BERRI ZERBITZUAK SLri dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen instrukzioa egitea, eta ebazpenproposamen bat egingo du.

Horiek ebazteko organo eskuduna Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren Administrazio Kontseilua izango da.

Eskabide bakoitza bakarka izapidetu, ebatzi eta jakinaraziko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 41.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

Dirulaguntzen lerro hau beste Administrazio Publiko batzuetako dirulaguntzekin bateragarria izango da, baldin eta ixtearen edo fakturaziomurrizketaren ondorioz galdutako kopurua gainditzen ez badu dirulaguntzen zenbatekoak (bakarrik edo beste Administrazio Publikoetako dirulaguntzekin zein laguntzekin batera edo beste erakunde publiko edo pribatu, nazioarteko zein nazional).

Hori dela eta, onuradunek erakunde emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinarazi beharko diote diruz lagundutako ekintza horiek gauzatzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edota baliabideak jaso diren.

Gehiegizko finantzaketaren kasuan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 araudian ezarritako itzulketaprosedura jarriko da abian.

Emandako dirulaguntza bankuko transferentzia bidez ordainduko da, onuradunak adierazitako kontu korrontean, derrigorrezko aldeko ebazpena jaso eta gero.

Dirulaguntza ebazteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, aurkezpen-eparean amaieratik zenbatzen hasita.

10.— Administrazioaren eskubidea aurkeztutako dokumentazioa gainbegiratzeko eta ikuskatzeko

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk eskubidea izango du dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako zinpeko adierazpenean jakinarazitako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko. Horretarako, dokumentazio osagarria eska dezake prozeduraren edozein unetan.

Onuradunek eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute, prozeduran atzera egin dutela ulertuko da, eta, bidezkoa bada, jasotako dirulaguntza itzuli beharko dute.

11.— Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaileetan ezarritakoaz gain, dirulaguntza horiek Sozietatearen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) eta berau garatzen duen araudiak arautuko dituzte.

Sozietate Publikoaren Administrazio Kontseiluak aurreko ataletan jasotako helburuen arabera dirulaguntzak emango dituen edo ez erabakitzeko gaitasuna izango du, jasota ez dauden egoeren kasuan.

Zallan, 2020eko azaroaren 26an.

Administrazio Kontseiluko burua.

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA

PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos	NAN / DNI		
e-posta / e-mail	Telefono zk. / Nº teléfono		
Noren ordezkartzan / En representación de	IFK / NIF - NAN / DNI		
Izen komertziala / Nombre comercial			
ENPRESARI BURUZKO INFORMAZIOA			
INFORMACIÓN RELATIVA A LA EMPRESA			
Kalea / Calle	Zk. / Nº	Solairua / Piso	Aldea /Mano
Solairua / Piso			
Aldea / Mano			
Posta-kodea / Código Postal	Herria / Municipio	Lurraldea / Provincia	
e-posta / e-mail	Telefono zk. / Nº teléfono		
Enpresaren jardueraren describapena / Descripción de la actividad de la empresa			
Altaren data / Fecha de alta	EJZren epigrafe nagusia Epígrafe principal IAE		

Beren jarduera Zallan altan emanda duten ostalaritzaestablezimenduentzako dirulaguntzak esleitzeko premiazko deialdiaren oinarri arautzaileak hasiera batean onestea. Dirulaguntza horien xedea da 2020ko azaroaren 6ko 38/2020 Dekretutik eta 2020ko abuztuaren 19ko Agindutik eratorritako galera ekonomikoak arintzea; aipatutako dekretuaren eta aginduaren bidez, oraingo egoera epidemiologikoaren garapenari dagozkion prebentzio neurri espezifikoak ezarri ziren.

Bases reguladoras de convocatoria urgente para la concesión de ayudas económicas destinadas a establecimientos de hostelería cuya actividad esté dada de alta en zalla, para paliar las pérdidas económicas derivadas del decreto 38/2020 y 39/2020 y la orden de 19 de agosto de 2020 mediante las cuales se determinan medidas específicas de prevención ante la evolución de la situación epidemiológica actual

Bat etorri COVID-19aren inpaktuak eragindako txikizkako saltoki, ostalaritza-establezimendu eta zerbitzu profesionalei laguntzeko xedez Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk, Zallako Udalaren jabetzako sozietateak, ezarritako laguntzen deialdiarekin,

Conforme a la convocatoria de ayudas establecidas por el Enkarterri Berri Zerbitzuak, S.L., Sociedad propiedad del Ayuntamiento de Zalla, con el objetivo de ayudar al comercio minorista, establecimientos de hostelería así como servicios profesionales derivadas del impacto del COVID-19

bere erantzukizunpean eta kontratazio-organoaren aurrean, honako hau ADIERAZTEN DU:

DECLARA, bajo su responsabilidad y ante el órgano de contratación:

1. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak adierazten du ezagutu, onartu eta bete egiten dituela Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk, Zallako Udalaren jabetzako sozietateak, onetsitako dirulaguntza hauek eta ziurtatzen du enpresak edo erakundeak eskaera-inprimakietan jasotako datuak egiazkoak direla

1º. Que el declarante/Que la empresa que representa, indica que conoce, acepta y cumple las condiciones y obligaciones establecidas en las presentes bases y aprobadas por Enkarterri Berri Zerbitzuak, S.L. propiedad del Ayuntamiento de Zalla, y certifica la veracidad de los datos consignados por la empresa o entidad en sus formularios de solicitud.

2. Hostalaritzako Establezimenduak, ezarritakoa betez, itxi egin du jendearentzat, COVID-19aren ondoriozko neurri berezi deklaratu ondoren, azaroaren 6ko 38/2020 eta 39/202 Dekretuetan eta xedatutakoaren arabera.

2º. Que, cumpliendo lo establecido, ha cerrado al público el establecimiento de hostelería tras las medidas especiales impuestas debido al Covid-19 según lo dispuesto en los decretos 38/2020 y 39/2020 respectivamente.

3. Deklaratzailea edo ordezkatzeko duen enpresa araudiak ezarritako sektore/jardueran barne dagoela

3º. Que el declarante/Que la empresa que representa, pertenece al sector/ actividad que establecen las bases.

4. Deklaratzailea/ordezkatzen duen enpresa jakitun da kontratazio-prozedura honen ondoriozko jakinarazpen guztiak posta elektronikoko helbidearen bitartez egingo direla.

4º. Que el declarante/Que la empresa que representa, consiente que todas las notificaciones derivadas del presente procedimiento de contratación sean realizadas a través de la dirección de su correo electrónico.

5. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak egunean ditu Zerga Ogasunarekiko, Zallako Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.

5º. Que el declarante /Que la empresa que representa, está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Tributaria, el Ayuntamiento de Zalla y con la Seguridad Social.

6. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak ez du Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (38/2003 Legea,

6º. Que el declarante/Que la empresa que representa no se encuentra incurso/a en ninguna de las

azaroaren 17koa) 13. artikuluan jasotako debekurik.

7. Deklaratzaileak/ordezkatzen duen enpresak, kontzeptu berberagatik, beste Instituzioei honako diru kopurua eskatu die:

8. Aurreko puntua esandakoa kontutan hartuz adierazten du guztira lortu duen diru kopurua ez duela gainditzen Fakturazio edota itxieraren galeraren zenbatekoa.

9. Jasotako dirulaguntzaren kontura egindako gastuen eta ordainketen egiaztagiriak, dokumentu elektronikoak barne, erakunde onuradun honek 2026. urtera arte jasoko ditu, dagokion administrazioaren egiaztapen- eta kontrol-jarduerekin xede izan daitezkeen bitartean.

9. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, onartzen du bere datuak Zallako Udalak laguntzak kudeatzeko ezartzen duen fitxategiaren parte izatea, eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuen (HAZ) bidez baliatu ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak.

10. Baimena ematen die Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri eta, ondorioz, Zallako Udalari, deialdi honen xede diren kontzeptu berberetarako eskatutako dirulaguntzei buruzko informazioa eskatzeko beste administrazio batzuei.

Horregatik guztiagatik, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLUri honako hau ESKATZEN DIO:
Eskatera onartua izatea eta dagokion laguntza ematea arestian adierazitako laguntzen deialdiarekin bat etorritz.

prohibiciones del art 13 de La Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones.

7º. Que el declarante/Que la empresa que representa, ha solicitado ayudas a otras instituciones en el mismo concepto por importe de:

8. Que declara que a pesar de lo manifestado en el punto anterior el importe total no supera la pérdida experimentada como consecuencia del cierre o reducción de la facturación.

9. Que la documentación acreditativa de los gastos y pagos efectuados con cargo a la subvención recibida, incluyendo en su caso los documentos electrónicos, obrarán en poder de esta entidad beneficiaria hasta el año 2026 en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control de la Administración correspondiente.

9º. Que con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre sobre Protección de datos de carácter Personal, acepta que sus datos formen parte del fichero que establezca el Ayuntamiento de Zalla para gestionar las ayudas y podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición a través de los Servicios de atención Ciudadana (SAC).

10º Autoriza a Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L. y por tanto, al Ayuntamiento de Zalla, a solicitar información, a otras Administraciones, relativa a las subvenciones solicitadas para los mismos conceptos objeto de la presente convocatoria.

Por todo lo cual, SOLICITA a, Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L.U.;;
Sea aceptada su solicitud y se le conceda la ayuda que corresponda conforme a la convocatoria de las ayudas arriba indicada.

Data / Fecha

Legetzko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo erakundearen zigilua

Firma del representante legal y sello de la empresa o entidad

(Lekua, data eta deklaratzaillearen sinadura)

*** Eratutako pertsona juridikoentzat soilik**

(Lugar, fecha y firma del declarante)

**Sólo para personas jurídicas constituidas.*

HIRUGARRENEI ALTA EMATEKO DOKUMENTUA

DOCUMENTO DE ALTA DE TERCEROS

Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos	NAN / DNI
Noren ordezkartzan / En representación de	IFK / NIF - NAN / DNI
Izen komertziala / Nombre comercial	

Kontu korronteko zkia (IBAN) / nº cta.cte (IBAN)**Izena eta bi abizenak** / Nombre y dos apellidos del titular**Titularraren nortasun agiriaren ZK/Num del DNI del titular**

País	DC	Entidad	Oficina	DC	Nº Cuenta

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua

Firma del/ de la representante legal y sello de la empresa

(*) Kontuaren titulartasun-ziurtagiria ere gehituko da, erabilgarritasunaren arabera. Diligentzia: Dokumentua sinatzen duenak bere gain hartzen du arestian zehaztutako datuen ardura, bai datu orokorra bai bankuko datuena. Datu horiek identifikatzen dute legezkiokkeen ordainketak jasotzeko baliatu nahi duen **BANKU-ERAKUNDEA eta kontua. Hori horrela izanik, **Enkarterri Berri Zerbitzuak SL (Zallako Udala)** salbuetsita geratuko da datu horietan akatsak edo omisioak egitearen ondoriozko erantzukizunetatik.**

(*) Se acompañará certificado de titularidad de cuenta, según disponibilidad.

Diligencia: El abajo firmante se responsabiliza de los datos detallados, tanto generales como bancarios, que identifican la cuenta y la ENTIDAD FINANCIERA a través de las cuales se desean recibir los pagos que puedan corresponder, quedando Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L. (Ayuntamiento de Zalla) exonerado de cualquier responsabilidad derivada de errores u omisiones en los mismos.

Baimena ematen diot Zallako udalari eskabide honen inguruan niri dagozkidan administrazio-egintza guztiak honako bitartekoaz komunikatzeko, dokumentazioa elkar-trukatzeo eta jakinarazpenak bidaltzeko, horrek balio fede-emaile eta frogatzaile osoa izanik.

Autorizo al Ayuntamiento de Zalla al uso del medio siguiente como canal de comunicación, intercambio de documentación y notificación con pleno valor fehaciente y probatorio de cuantos actos administrativos me afecten en relación a la presente solicitud.

Posta elektronikoa (Jakinarazpena hartu izanaren agiria bidali behar da)
Correo electrónico (Imprescindible realizar acuse de recibo)

Urriaren 1eko 39/2015 Legean (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta indarrean dagoen gainerako legerian ezarritakoarekin bat etorriz, Zallako Udala Udalari BAIMENA EMATEN DIOT, eskaera hau dela eta:

Conforme a lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y demás legislación vigente, AUTORIZO al Ayuntamiento de Zalla, en relación con la presente solicitud:

Zallako Udalari BAIMENA EMATEN DIOT eskaera AUTORIZO al Ayuntamiento de Zalla **hau egiteko behar den informazioa beste** a solicitar a otras administraciones la **administrazio batzuei eska diezaien.** información necesaria relativa a la presente solicitud.

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

NAN, egoitza baimena, AIZ edo pasaportea		DNI, permiso de residencia, NIE o pasaporte
Identifikazio Fiskalerako Zenbakia (IFZ) egiaztatzen duen txartela		Tarjeta acreditativa de Número de Identificación Fiscal (NIF)
2020ko irailan eta urrian autonomoen kuota ordaindu izanaren ziurtagiria. (Gauko Aisialdi Lokalak eta III eta IVko establezimenduetan itxieraren baino lehego bi ak)		Recibo justificativo de haber procedido al pago de autónomos durante los meses de septiembre y octubre del 2020. (locales y actividades de ocio nocturno, bares y establecimientos de la categoría III y IV, de los dos meses previos al cierre obligado)

AURKEZTEKO EPEAK ETA MODUAK:

PLAZOS Y MODOS DE PRESENTACIÓN:

Eskaerak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau behin betiko onarpenatik aurrera zenbatzen hasita. Oro har, onuradunek honako hauetan eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte: Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren dirulaguntzen prozeduretarako Jarraibide Orokorrak, Zallako Udalaren dirulaguntzen udal-ordenantza eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen araudia.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente de la aprobación definitiva de la presente convocatoria. Con carácter general, los beneficiarios deberán reunir las condiciones exigidas en las Instrucciones Generales para los procedimientos de subvención de Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L. Ordenanza municipal de subvenciones del Ayuntamiento de Zalla y por la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y Reglamento que lo desarrolla.

Telemakikoki/Telemáticamente: <https://sac.zalla.eus>

Posta elektronikoa/Correo electrónico: sac@zalla.eus

Posta arruntaren bidez: Posta bulegoetan, posta ziurtatu irekiaren bidez.

Por correo postal: En las oficinas de Correos mediante correo certificado abierto.

Informazio gehiagotarako deitu 010 (Zallatik) edo 946390001 (Zallatik kanpo)

Para más información llamar al 010 (desde Zalla) o al 946390001 (desde fuera de Zalla)

DATUEN BABESA		PROTECCIÓN DE DATOS
Beren jarduera Zallan altan emanda duten ostalaritzaestablezimenduentzako dirulaguntzak esleitzeko premiazko deialdiaren oinarri arautzaileak hasiera batean onestea. Dirulaguntza horien xedea da 2020ko azaroaren 6ko 38/2020 Dekretutik eta 2020ko abuztuaren 19ko Agindutik eratorritako galera ekonomikoak arintzea; aipatutako dekretuaren eta aginduaren bidez, oraingo egoera epidemiologikoaren garapenari dagozkion prebentzio neurri espezifikoak ezarri ziren.	Tratamendua/ Tratamiento	AYUDAS ECONÓMICAS DESTINADAS A ESTABLECIMIENTOS DEDICADOS AL ESTABLECIMIENTOS DE HOSTELERÍA y SERVICIOS PROFESIONALES CUYA ACTIVIDAD ESTE DADA DE ALTA EN EL MUNICIPIO DE ZALLA, PARA PALIAR LAS SITUACIONES DERIVADAS DE LA EVOLUCIÓN DEL COVID-19, AÑO 2020
Zallako Udalak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak tratatuko direla honako araudi	Tratamenduaren arduraduna/Responsa	Ayuntamiento de Zalla, y le informa que serán tratados de conformidad con el

<p>hauekin bat etorrita: (EBren) 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Betiere, interesdunaren legezko ordezkariaren baimena izanda tratatuko dira.</p>	<p>ble del tratamiento</p>	<p>Reglamento (UE) 2016/679 de 27 de abril de 2016 (RGPD) y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales (LOPDGDD), con el consentimiento del representante legal del interesado.</p>
<p>Eskaera izapidetzea eta horri erantzutea, ezarritako administrazio prozeduraren arabera. Covid-19aren bilakaeraren ondoriozko egoerak arintzeko, euren jarduera zallan alta emanda duten txikizkako saltoki, ostalaritza-establezimendu eta zerbitzu profesionalentzako dirulaguntzak eskaerak izapidetzearen eta kudeatzearen gaineko zerbitzua ematea, Udal eskumenen esparruan, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako tratatzeari eragozpenik jarri gabe, aplikatu daitezkeen legeriaren arabera.</p>	<p>Helburua/Finalidad</p>	<p>Tramitación de la solicitud y darle respuesta, conforme al procedimiento administrativo establecido. Prestar servicios de tramitación y gestión, que procedan en el ámbito de las competencias del Ayuntamiento, en relación con el procedimiento de ayudas económicas destinadas a establecimientos dedicados al comercio minorista, establecimientos de hostelería y servicios profesionales cuya actividad este dada de alta en el municipio de zalla, para paliar las situaciones derivadas de la evolución del covid-19, año 2020, sin perjuicio de su posible tratamiento posterior para fines históricos, estadísticos o científicos, de acuerdo a la legislación aplicable.</p>
<p>Emandako datuak administrazio publikoen eskura dauden xedapenetan legez ezarritako epeetan gordeko dira, tratamenduaren ondorioz sortutako balizko erantzukizunei arreta emateko eta beti gordetzeko eta erreserbatzeko betebeharra beteta.</p>	<p>Kontserbazioa/Conservación</p>	<p>Los datos proporcionados se conservarán durante los plazos legalmente previstos en las disposiciones aplicables a disposición de las Administraciones Públicas, para la atención de las posibles responsabilidades nacidas del tratamiento y siempre bajo el deber de secreto y reserva.</p>
<p>Datuak tratatzeko legitimazioa zuri eskatzen zaizun eta eskaera honekin batera entregatzen duzun baimen libre, argi, informatu eta agerian oinarritzen da, hori kentzeko aukera eragotzi gabe.</p>	<p>Tratamenduaren legitimazioa/Legitimación del tratamiento</p>	<p>La legitimación para el tratamiento de los datos está basado en el consentimiento libre, expreso, informado e inequívoco que se le solicita, sin perjuicio de la posible retirada del mismo.</p>
<p>Datuak eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraziko zaizkie. Beste entitate batzuei ere jakinaraziko zaizkie, zuzenean Udalak egiten ez dituen jarduerak egiteko. Jarduera horiek kontratu edo hitzarmen batean arautuko dira, eta horietan, datuak tratatzeko baldintzak ezarriko dira, araudia betetzen dela bermatzeko.</p>	<p>Hartzaileak/Destinatarios</p>	<p>Los datos se comunicarán al Administraciones Públicas con Competencias. Y a otras entidades para el ejercicio de actividades que no se realicen directamente por el Ayuntamiento y que vendrán reguladas en un contrato o convenio, en los que se establecerán las condiciones del tratamiento de datos para asegurar el cumplimiento de la normativa.</p>
<p>Nahi izanez gero, datu pertsonalak sartzeko, zuzentzeko, oposiziorako, ezeztatzeko, mugatzeko eta eramangarritasunerako (hala badagokio) eskubideak erabil ditzakezu, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera. Horretarako, jarri harremanetan ZALLAKO UDALAREN Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzuarekin. Zallako Kosme Bibanko kalean dago, 2. zenbakian, PK 48860 (Bizkaia). Gainera, datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, dpd-dbo@zalla.eus helbidera mezu elektronikoko bat bidalita. Eskaerak formulario elektronikoa bidez ere bete daitezke, https://www.zalla.org/protecciondedatos webgunean (Datuak Babesteko Eskubideak).</p> <p>Bestalde, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurkez diezaiokezu eskubideen tutoretza prozedura bat (http://www.avpd.euskadi.eus/), baita Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ere (https://www.aepd.es/).</p>	<p>Eskubideak/Derechos</p>	<p>Si lo desea, Vd. podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, oposición, cancelación, limitación y portabilidad (si procediesen) de los datos personales, según lo establecido en la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del AYUNTAMIENTO DE ZALLA, sito en la calle Kosme Bibanko nº. 2 de Zalla, C.P. 48860 (Bizkaia). Así como contactar con nuestro Delegado de Protección de Datos, mediante correo electrónico a la dirección: dpd-dbo@zalla.eus. También para ello disponen de solicitudes a través del formulario electrónico disponible en https://www.zalla.org/protecciondedatos (Derechos de Protección de Datos).</p> <p>Por otra parte, le informamos que usted puede ejercitar un procedimiento de tutela de derechos ante la Agencia Vasca de Protección de Datos (http://www.avpd.euskadi.eus/) y la Agencia Española de Protección de Datos (https://www.aepd.es/).</p>